

UROLA KOSTAKO

HITZAGUKA

UROLAKOSTA.HITZA.EUS

OSTEGUNA, 2023KO

MARTXOAREN 16A

XX.URTEA., 5.347. ZENBAKIA



ISILDUTAKOEN AHOTSA

Betto Snay bilbotartutako rapero angolarrak hitzaldia eta kontzertua emango ditu Azpeitian. Bidegabekeriak kontatzeko baliatzen du musika // 5

Doinuele euskara hutsezko kultur egitasmoen sarea aurkeztu dute

Euskarazko sormena sustatzeko asmoz sortu dute sarea, hainbat proiektuk bat eginda. Tartean dira Azkoitiko Geure Gelatik eta Zarauzko Literaturia // 2



«Taldea ondo ikusi dut, eta gustura gaude egindako lanarekin»

Unai Etxeberria

Telmo Deuneko entrenatzailea

Bizitza guztian Orion arraunean aritu ostean, Zumaiaiko gizonen arraun taldeko entrenatzailea da oriotarra. Azken urteetako postuari eustea edo, ahal bada, lorpenak hobetzea du helburu // 4

Azpeitia Lehen aldiz, kimu nesken lehia izango da Domusa Teknik Azpeitia Cup txapelketan // 7

Euskarazko sormena sustatzeko

Zortzi kultur egitasmok Doinuele euskara hutsezko plazen sarea aurkeztu dute
• Sustatzaileen artean daude Azkoitiko Geure Gelatik eta Zarauzko Literatura

–ARITZ MUTIOZABAL

Doinuele euskara hutsezko plazen sarea aurkeztu zuten atzo goizean Bilboko Bira espazioan. Urtero hainbat kultur ekintza nahiz jaialdi antolatzen dituzte Euskal Herriko hainbat herritan, euskara hutsezko liburuak nahiz diskoak plazara ateratzeko eta jendartearen ezagutzera emateko. Hain justu ere, egitasmu horien arteko «sarea josten» hasteko unea iritsi dela erabaki dute, «elkar sostengatzeko, elkarren berri izateko, ideiak eta esperientziak elkar trukatzeko eta egutegia adosteko». Hastapenean zortzi kultur ekimen elkartu dira, eta horien artean daude Azkoitiko Geure Gelatik eta Zarauzko Literatura.

Gainerako seiak, berri, ondorengoak dira: Galdakaoko (Bizkaia) Sormene; Ziburuko (Lapurdi), Hernaniko (Gipuzkoa) eta Lazkaoko (Gipuzkoa) liburu eta disko azokak; Sarako (Lapurdi) Ikusi Mikusi, eta Baztango (Nafarroa) (H)ilbeltza. Edonola ere,

multzoa ez dela hertsia nabarmendu dute, eta atekak irekita daudela sare horretan parte hartu nahi duten gainerako proiektuentzat. Doinuele sareko kide diren zortzi ekimenetako ordezkariak gain, Idazleen Elkarte, Editoreen Elkarte eta Itzultzaileen Elkarte arduradunek ere parte hartu zuten agerraldian.

«Gure txikian bagara nor»

Asko dira zehaztu dituzten helburuak: euskara hutsezko publiko indartzea; euskaraz bizi den sarea zabaltzea; azokak errentagarri egitea; kultur sortzaileak sostengatzea; euskal jendea liburu nahiz diskoetara gerturatzea eta liburuak nahiz diskoak herri-tarrei hurbiltzea, eta euskarazko liburu eta diskogintzaren aniztasuna eta aberastasuna plazan ikusaraztea. «Goxo eta atseginagari da euskaraz bizitzea: gure txikian bagara nor, hemen gaude eta egon nahi dugu», aldarrikatu zuten. Prentsaurrekoan Doinueleren logoa ere aurkeztu zuten,

euskarazko doinuei eta elei dagokien garrantzia emanez.

Literaturia kide Itziar Iruretagoienak azaldu du aurretik bazetorren proposamen bat zela: «Bakoitzak bere aldetik funtzionatzen zuen, eta askotan, datak jartzerakoan, ez geneukan besteen berri. Orain arte nahiko sakabanatuta funtzionatu izan dugunez, pentsatu genuen sare bat osatzea, guztion indarrak batzeko». Egitasmua aurrera ateratzeko bilera batzuk egin dituztela jakitera eman du Iruretagoienak, «beharra» ikusten zutelako.

«Logoa eta kartel orokor bat atera ditugu. Bertan, azoka guztien datak agertuko dira. Gisa horretan, euskal literaturaren eta musikaren jarraitzaileek urte osoko zirkuitu bat izango dute eskura. Euskal Herrian barna antolatzen ditugun euskara hutsezko ekintzak isolatuta geratu beharrean, urteko ibilbide bat osatu dugu elkarrekin», dio Literaturia kideak. Finean, itzaletik argira ekarri nahi dituzte.

Maxixatzen elkarteak antolatzen du Geure Gelatik emakume idazleen liburu azoka, eta elkarteak bat egin du egitasmuarekin, «sare baten parte izatea beti delako ona», elkarte kide Julen Garatek zehaztu duenez. «Sare honi esker, elkar ezagutu, esperientziak trukatu eta elkarrengandik ikasiko dugu». Urte osoko egitaraua izanik, aproposa dela iritzi dio hark, datorren astean egingo dutelako Geure Gelatik azoka.

Beraz, egitasmuaren arteko harremanak sendotzeko balioko du Doinuelek. «Batak bestearen berri edukitzeko, edo batek zerbait beharko balu, multzoaren sostengua eta laguntza izateko. Edozer gauzatarako, ongi etortzen da beti indarrak batzea», dio Iruretagoienak. Dena dela, egitasmua abiapuntuan aurkitzen da oraingoan, eta printzipioz, antolatzaile bakoitzak bere egitaraua atondu du aurretik, «modu independentean».

Guztia euskarazko kultur ekimenak izanagatik ere, ba-

koitzak bere izaera du eta ezberdina da besteekin alderatuta, Literaturia kide ordezkariekin hitzetan: «Batzuk egun batekoak dira, besteak asteburu osoak; batzuk azokak bakarrik dira, eta beste batzuek azokarik ez eta ekitaldiak antolatzen dituzte... Adibidez, (H)ilbeltzakoekin eta Sormenekin harreman zuzena izan dugu, eta beste batzuen ibilbidea ezagutzen dugu; baina bakoitza bere egitasmuaren sortzaile izateaz gain, besteen parte izango da orain. Guk, adibidez, Literatura aurkezten dugunean, Doinueleren berri ere emango dugu, eta jakina, beste proiektuen eta azokaren berri ere bai. Hala, jendeak informazio zabalagoa jasoko du, eta batera joaten denak besteen berri izango du».

Azken finean, euskal kultur zaleentzat zein sortzaileentzat plazak edo guneak dira Doinuele sarean barnebiltzen diren egitasmoak: euskaraz egingako sorkuntza sustatu nahi dutenak. Sarea ez da itxia, eta atekak irekita dituzte parte hartu nahi duten beste antolatzaileentzat. Hori horrela, deia egin diete haiekin harremanetan jarri eta Doinuelera elkar daitezten. Zera esan zuten aurkezpenean: «Euskara hutsezko plazen sarea gara eta ongietorriak zarete, bidea elkarrekin egingez euskarazko bidea zabalduz joan gaitezen».

Geure Gelatik eta Literatura, egitarauak aurki

Datorren astean izango da Maxixatzen Euskaldunon Elkarteak antolatzen duen Azkoitiko Geure Gelatik liburu azoka, martxoaren 24an eta 25ean. Elkarrengandik izango da topagunea, eta azokaz gain, bestelako ekitaldiak ere antolatuko ditu elkarteak. Horien berri aurki emango du jakitera.

Maiatzaren 5etik 7ra ospatuko dute aurretik Zarauzko Literatura, eta dagoeneko forma hartzen ari da egitaraua. «Ekitaldi gehienak ixten ari gara. Egia esan, bide onetik doaz antolaketa lanak, eta liburu azoka ere ziurtatuta daukagu», azpimarratu du Itziar Iruretagoienak ordezkariak.

Apirilaren 20an egingo dute aurkezpen ekitaldia, Garoa liburu dendan, eta bertan jakinaraziko dituzte Literaturia kideen xehetasun guztiak. Edonola ere, sare sozialaren bidez aurten goia zein den azalduko dute.



Doinuele sarearen aurkezpena egin zuten atzo, Bilbon. Erdian, Literaturia kide Itziar Iruretagoienak, eta Maxixatzen elkarteak ordezkari Julen Garate, eskuinetik bigarrena. DANI BLANCO / ARGIA



Orioko genealogia feminista dokumentalaren grabazioa, Arraunetxen. MIRIAM GARCIA

Ligatzeko aplikazioen bueltan, 'Sex Sua' antzezlanaren eskainiko dute

-A. LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Larunbatean *Sex Sua* antzezlanaren taularatuko dute Orioko Kultur Etxean, 19:00etan hasita, eta sarrikerak salgai daude, bi eurotan. Andoni Mutiloa da lanaren zuzendaria eta aktorea, eta hark azaldu du ligatzeko aplikazioak direla musika eta antzerkia uztertzen dituen obraren abiapuntua. «Nire esperientzia pertsonalean oinarritu naiz, konturatu naizelako oso desberdin jokatzen dugula aplikazioetan, aurrez aurreko harremanekin aldekatuta». Uste du komunikazio kode berriak sortzen direla, eta «konturatu gabe onartu» egiten dituztela erabiltzaileek.

Gaiaren inguruko gogoeta egin nahi izan du, baina «teorizatu gabe»; adibide argiak azalduz, alegia: «Aplikazio horietan badira, esaterako, *Kaixo* esan aurretik zuzenean biluzik agertzen diren argazkiak bidaltzen dituzten pertsonak». Gai hori eta beste hainbat jorratzen ditu *Sex Sua* antzezlanean.



Orio Eragineko jokalaria. S.CUBERO

Kirol taldeek dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du Orioko Udalak

-A. LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Herriko kirol elkartei zuzenduta, urteko dirulaguntzak eskatzeko epea martxoaren 28ra arte irekita egongo dela jakinarazi du Orioko Udalak. Laguntza lerroarekin herrian ariketa fisikoa eta kirola ardatz duten irabazi asmorik gabeko jarduerak eta egitasmoak sustatu nahi ditu udalak.

Dirulaguntza deialdia eta bete behar diren dokumentuen ereduak Orioko Udalaran atari ditaldean daude eskuragarri.

'Orioko genealogia feministak' dokumentala aurkeztuko dute bihar

Pertzetik elkarteak ondu du Orioko mugimendu feministaren ibilbidea jasotzen duen dokumentala • Belaunaldien arteko harremana indartu eta etorkizuneko erronkez hausnartu dute

-AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Orio 2021ean, Xaltxerak talde feministako kideek jakin zuten Orioko mugimendu feminista uste zutena baino zaharragoa zela, 1980ko hamarkadan izan zelako herrian «gizarte parekideagoa» lortzeko lana egin zuen emakumeen taldea. Hari horri tiraka, hainbat belaunalditako emakumeen arteko topaketa antolatuta zuten, horiek elkar ezagutzeko eta mugimendu feministak herrian egin duen ibilbidea jasotzeko asmoz. Hain zuzen ere, bilgune horretan sortu zen, lehen aldiz, Orioko genealogia feminista jasotzen duen proiektua sortzeko nahia.

Ametsa errealtate bihurtu da, eta bihar arratsaldean aurkeztuko dute Etxeluzeko gaztetxean emakumeen eskubideen aldeko borroka Orion izan duen ibilbidea jasotzen duen dokumentala, *Orioko genealogia feminista* izenburupean. 18:30ean emango diote hasiera proiektuari, eta

ondoren, solasaldia izango da dokumentaleko protagonistenkin.

Harremanak indartuz

Orioko Ahalduntze Eskola zuzentzen duen Pertzetik elkarteak kideek ondu dute dokumentala: Aizpea Esnaolak, Miriam Garciak eta Eider Goiburuk. Ez ziren hutsetik hasi, Xaltxerak talde feministako kideek antolatutako belaunaldien arteko topaketan informazio eta material asko jaso eta horrekin Orioko genealogia feminista islatzen zuen denbora lerroa osatu baitzuten. «Proiektu sakonagoa lantzeko gogoak genuen, baina ohartu ginen lan handia zela militantziaz egiteko, eta Pertzetik elkarteak kideek hartu genuen proiektuaren gidaritzan, Emakunde emandako dirulaguntza bati esker», azaldu du Eider Goiburuk.

Ia ordubeteko dokumentala osatu dute, eta bertan, olatu feminista desberdinetako emakumei binaka elkarrizketak egite-

az gain, belaunaldien arteko elkarrizketak ere jaso dituzte, etorkizuneko helburuez hausnartuz. «Belaunaldien arteko harremana indartzea eta etorkizuneko erronkez denon artean gogoeta egitea ere bada dokumentalaren helburua, tamalez, orain arte ez delako transmisioa gertatu», aitortu dute.

Hiru olatu

Egileek uste dute herriko mugimendu feminista osatu duten hiru olatuen artean badaudela hainbat desberdintasun. garaiko testuinguruak baldintzatutakoak: «Lehen olatuan, gorpuzka, sexualitatea eta antisorgailuen gaia landu zituzten, gehienbat; bigarrenean, hausnarketa feministara bideratuagoa egon zen militantzia; eta hirugarrengoa, aldarrikapenak sozialagoak izan dira. Dena dela, ohartu gara badirela gaiak 40 urte hauetan pillean jarraitu dutenak; beraz, oraindik asko dago egiteko», ondorioztatu dute.



UKT
UROLA KOSTAKO KOMUNIKAZIO TALDEA K.O.P.I.K

Abiarritik ezteratzen, egunkaritasun

Urola Kostako HITZA

Hiru, abiarritik

Maxikaltzen
Uetarrak
Baleke
Karkara

egunkaria

Urola telebista

Urola ere

maxikaltzen.eus
uetarrak.eus
urolakostako.hitzak.eus
baleke.eus
karkara.eus
errotebista.eus
zarauzkchilza.eus

zure sozialak

f t

Atzer

bidetask.gi.re
woblogu.net/en

GUREKIN PRAKTIKAK EGIN NAHI?

PRAKTIKETARAKO EPEA MAIATZAREN 2TIK UZTAILAREN 31RA ARTE

Interesa baldin baduzu bidali curriculumak administrazioa@ukt.eus posta elektronikora **apirilaren 5a baino lehen**

Urola Kostako euskarazko komunikabide liderra

EZAUGARRI HAUEK BETE BEHAR DITUZTE INTERESATUEK:

- Kazetari ikasketak egiten aritzea, euskaraz.
- Komunikazio euskarri ezberdinetan lan egiteko interesa.









EZ GALDU AUKERA!



MIREIA GALARZA BASTIDA

«Aurtengo helburua da aurreko urteetako emaitzak berdintzea»

UNAI ETXEBERRIA ZUMAIKO ARRAUN ENTRENATZAILEA

Oriotarra izatez, Zumaia bizilaguna da egun Unai Etcheberria (Orio, 1988). Arraunlari gisa elastiko horia urte luzez jantzi eta gero, aurtengo beste modu batera biziko du arrauna.

-MIREIA GALARZA BASTIDA
Bizitza guztia Orion ibili ostean, Telmo Deunera iritsi zara gizonen lehen taldeko entrenatzaile bezala. Zer esan nahi du horrek zuretzat?

Gaur egun Zumaian bizi naiz, eta gertutasunari erreparatzen badiogu, erosoena da klub horretan aritzea. Arrauna asko gustatzen zait, baina badakit bestela ezingo nukeela horrelako proposamen bat onartu. Familia eta lana ere badituz, eta denera ezin da iritsi.

Lehen talde bateko entrenatzaile ariko zaren aurreko aldia da. Erroka handia al da hori zuretzat?

Bere garaian entrenatzaile titulu ateratu nuen, eta urtebetez ibili nintzen Orioko jubenilen taldea gidatzen, 2013-2014 inguruan. Aurtengoa izango da lehen talde bateko entrenatzaile izango naizena aurreko urtea, eta zailtzarrik gabe, erroka handia da hori, batez ere, neure buruarrekiko. Izan ere, beti beste aldeetik bizi izan dut arrauna. Ahal dudan guztia egiten badut, ez da gutxi izango.

Nola iritsi zitzaizun entrenatzaile izateko aukera?

Aurreko urtean entrenatzaile lanetan ibili zen Odei Arrizabalaga beste herri batera joan da bizitzera, eta berak ezezkua eman zue-

nean deitu zidaten niri. Egia esan behar badut, ez nuen inondik inora espero Telmo Deuneko zuzendaritzatik jasotako deia, eta pentsatzeko denbora behar nuela esan nien; hiru aste inguru. Ez zait botereprontoan hartzeko moduko erabakia iruditzen, eta lanean eta etxean hitz egin ostean, baietz esan nuen. Pentsatu nuen orduantxe zela garaia, eta probatzea erabaki nuen.

Arrizabalaga aipatu duzu. Zerbait esan al dizu berak?

Aspalditik ezagutzen dut, Orion nenbilenean, bera ere ibili zelako gurekin hiru urtez. Egia esan, ez dit gomendio berezirik eman, ahal dudana egiteko bakarrik

esan dit. Azken finean, urtetik urtera asko aldatzen dira gauzak.

Portugaleteko, Hondarribiko eta Oriako jaitsierak jokatu dituzue jada. Nola ikusi duzu taldea?

Taldea ondo ikusi dut, eta gustura gaude egindako lanarekin. Egia da estropada batzuetan gusturago ibili garela beste batzuetan baino, baina ilusio puntuarekin gaude. Aurreko denboralditik bospasei pertsonak utzi dute taldea, eta hasieran arraunlariak bilatu ezinda ibili nintzen. Zumaian aurrez ibilitako jendea topatzen saiatu nintzen, baina gauzak ez ziren nahi bezala atera. Horrenbestez, kanpora begira jarri nintzen, eta Alacanteko (Herrialde Katalanak) bat etorriko da, baita sei urtez arrauna utzita egon den beste oriotar bat ere. Jubeniletako beste pare bat ere gehitu dira taldera.

Eta traineru denboraldiari begiratuta, zeintzuk dira jarriko dituzun helburuak?

Hemeroteka begiratuta, Zumaia zortzigarren postuaren bueltan bukatu du azken urteetan, eta hori berdintzea izango da helburua. Halere, behin eskatzen hasita, postu hori hobetzea izango litzateke lorpen onena.

Egunez aldatuko dute Olagarro Eguna, triatloia dela eta

JAIKAK // 2023ko Olagarro Eguna ohi baino geroago ospatuko dute aurtengoan, Zumaia Udalak jakinarazi duenez. Horren arrazoiak Zumaia triatloia proba dela azaldu du erakundeak. Aurtengo ere egingo dute herrian hain kutuna den Olagarro Eguna, baina astebete geroago. Hori horrela izanda, triatloia irailaren 16an jokatuko dute, eta Olagarro Eguna, berriz, irailaren 23an izango da.



Olagarro Eguneko argazki bat.

'Un pes mas' film dokumentala emango dute gaur Aita Marin

KIROLA // Indamendi mendi bazkunak antolatuta, *Un pes mas* dokumentala emango dute gaur, 19:30ean hasita, Aita Marin aretoan. Ikus-entzunezkoa zuzendutako duen Silvia Vidal eskalatzailea han izango da, bere proiektua aurkezteko. Vidal da dokumentaleko protagonista, eta duela sei urte Alaskan bakarrik zabaldu zuen bide berriaren nondik norakoak kontatuko ditu.

Geuretik Sortuak sormen beka jaso du Maite Aizpuruak

KULTURA // Geuretik Sortuak kultur egitasmoaren bigarren edizioa martxoan du Udaltaldeak. Guztira, hamar idazle, bost komikigile, hiru antzerki konpainiak eta lau zinemagilek jaso dute sormen beka; tartean, Maite Aizpuru zumaiaarra. Aizpuruak Nafarroan egingo du egonaldia -Araitzen, Betelun eta Larraulen, zehazki-, eta Zumaia ere hartuko du antzerki-gintza arloko egonaldia bat.

Zozketak

28 ELIKADURA
ERRIGORA

[Zozketa zenbakia: 28]

Bi saski

HITZAkide en TXOKOA

29 SASKIBALOA
**GIPUZKOA BASKET -
HEREDA SAN PABLO BURGOS**

Martxoak 19 igandea,
12:00etan, Donostiako Illunbe estacion
[Zozketa zenbakia: 29]

Sarrera bikoitz bat



Zozketan parte hartzeko deitu: 943-56 01 64 zenbakira edo webguneko ZOZKETAK atalean izena eman. Epea: Gaurtik martxoak 16, 12:00ak arte. Saridunen izenak martxoaren 17an, ostirala, argitaratuko dira.

Betto Snay Bilboko San Frantzisko auzoan bizi den rapero angolarra Azpeitian izango da bihar, Gaztelekuan aurrena, eta Sanagustinen gero. 19:30ean hasita, kontzertua emango du, doan.

Musika, tresnatzat

-AITZIBER ARZALLUS

Betto Snay duela 23 urte iritsi zen Euskal Herrira, Angolako gerra zibiletik eta derri-gorrezko zerbitzu militarretik ihesi. Ama eta anai-arrebak Barakaldon (Bizkaia) bizi zituen ordurako, eta gogoan du amak direnak eta ez direnak egin zituela bera ere etor zedin, «ez baitago amarik bere semea gerran ikusi nahi duenik». Snayk 17 urte zituen orduan, eta aitortu du Euskal Herrira ailegatu zenean «sekulako kolpea» hartu zuela. «Espainia markapean atzerrian saltzen dutenak eta Barakaldon eta Bilbon topatu nuenak ez zeukaten zerikusirik. Ibizako parajeak, eguzkia eta hondartzak espero nituen, ez lainoepen eta euripean bizi zen hiri gris eta industrial bat eta erabat kutsatutako itsasadar bat. Azaroan iritsi nintzen, sekulako hotza egiten zuen, eta ama alokairuko etxe batean bizi zen, hiru seme-alabarekin, nahiko baldintza eskasetan. Hasiara gogorra egin zitzaidan; oso gaizki pasatu nuen».


Hutsetik hasi behar izan zuela dio, zentzu guztietan. «Ikasten hasi nintzen, lanean ere bai, eta denetarik egin behar izan nuen aurrera ateratzeko: kalean propaganda banatu, kartoiak jaso birziklatzeko... Eta egoera desatsegin asko bizitzea egokitu zitzaidan: arrazakeria eta bazterkeria jasan nituen, begirada txarrak, besteengandik desberdina nintzela sentiarazten zidaten, gutxietsita sentitzen nintzen. Ez nuen ulertzen, Angolan ere bizi baita jende zuria, eta ez baitut usate horrela sentitzen direnik». Ordutik urte asko pasatu diren arren, ez zaio iruditzen egoerak hobera egin duenik; kontrara, «geroz eta okerrago» ikusten ditu gauzak. «Immigrazioa kritikatzeta eta etorkinez gaizki esaka

aritzea modan daude Europan, baita hemen ere. Begira eskuineko alderdiek zer-nolako diskurtsoak darabiltzaten, eta, hala ere, geroz eta babes handiagoa dute bazter guztietan. Etorkinen inguruan gezur asko esaten dute, eta herritarrek dena itu-itsuan sinesten dute, ezer kontrastatu gabe».

Hamaika proiektu

Baina egoerarik zailenetara ere egokitzen ikasten du batek, eta halaxe egin zuen berak ere. «Harremanak egiten zoazen heinean, zeure sarea osatzen zoaz, eroso sentitzen zaren habitata sortzen». Eta hori Bilboko San Frantzisko auzoa du Snayk. «Uharte bat da San Frantzisko, beste mundu bat. Langabezia oso altua da, auzo oso estigmatizatua da, biolentzia, itsusia eta inork ez du hara joan nahi; baina niri beti iruditu izan zait aukera asko dauden leku bat. Nahasten dira kulturak, hizkuntzak, pentsamoldeak; nahasten dira mota askotako bizipenak eta ekarpenak... Leku oso aberatsa da, nahiz eta aberastasun hori gutxietsita egon, eta baita talentu handiko jende asko bizi den leku ere».

Musikari heldu zion Snayk, eta musika darabil tresna gisa. «Salatzeko baino gehiago, adierazteko erabiltzen dut musika, bidegabekeriak kontatzeko, ahotsik ez dutenei ahotsa emateko, ikusgarritasuna emateko». Etxagabeei, esate baterako. «Zorionez, nik badut lo egiteko ohe bat, baina jende askok ez dauka aukera hori. *Kartoizko ohea* izeneko abesti bat egin nuen etxetik kanporatutako emakumez hitz egiten zuena, kalean bizi den jendeaz... Eta jende askok bere egin zuen kantua, kontatzen nuena-rekin identifikatuta sentitzen zelako». Horrela abiarazi zuen *Kartoizko Ohea* proiektua. «Kamise-



Betto Snay Bilboko San Frantzisko auzoan bizi den rapero angolarra. UTZITAKOIA

tak atera eta saltzen hasi nintzen, eta ateratzen nuen dirua etxagabeei laguntzeko proiektuetara bideratzen». Baina hori ez da sustatzen eta parte hartzen duen egitasmo bakarra. Adibidez, Afrook arropa marka ere sortu

Bere kontzertuetan artista gazteak igo ohitu oholtzara, aukera bat emateko

Arteaz, musikaz eta bere bizipenez eta proiektuez ariko da herriko gazteekin

du, eta San Frantziskon duen bulego txikian jertseak, kamisetak eta bestelako hainbat material saltzen du, auzokideen bizi baldintzak hobetzeko helburuarekin. Ematen dituen kontzertuetan ateratzen dituen irabazien parte bat ere laguntzera bideratzen du; «irabazien %20 etxagabeei laguntzeko proiektuetara bideratzen ditut».

Horrez gain, talentudun artis-

tak ikusarazteko ere baliatzen ditu bere emanaldiak; ez baita soilik aukera kontua, hauspoa ere behar izaten dute. «Ezer ez didate oparitu eta lortu dudan guztia egindako lanaren emaitza da, baina egia da musikaren munduan leku bat egitea lortu dudala eta kontzertu dezente emateko aukera sortzen zaidala. Beste musikari askok, ordea, nahiz eta sekulako talentua izan, ezin izan dute agertoki batean kantatu inoiz, ez dute aukera hori izan, eta hori ezinbestekoa da ilusioari eusteko, lanean jarraitzeko eta gaitasunak garatu ahal izateko. Horregatik, horietako zenbait nire emanaldietara gonbidatzen ditut eta oholtzara batera lehen aldiz igotzeko aukera ematen diet. Ahalegintzen naiz artista gazteek ikus dezaten agertoki batean. Eredu seguruak sortu behar dira artista ez hain entzutetsuak ere gustura sentiti daitezten, eta artistak ez ezik, publikoa ere sarri gelditu izan da harrিতuta, ustekabean talentu izugarria duten artistak

ikusteko eta entzuteko aukera suertatzen zaielako».

Bihar, zuzen-zuzenean

Urrutira joan gabe, bihar Azpeitiko Sanagustin kulturgunean Betto Snay raperoa zuzenean ikusteko aukera izango dute herritarrek, 19:30etik aurrera eta doan. Elkar-ekinek gonbidatu du bilbotartutako angolarra, eta ohikoa duen moduan, bikharkoan ere ez da bakarrik igoko oholtzara. «Benjamin izena duen eta reggae musika egiten duen gazte bat joango da nirekin, eta ikustera doana harrিতuta geldituko da, kalitate handiko artista baita. Estilo askotako abestiez gozatzeko aukera izango dute berrak; beraz, animatzeko esango nieke denei». Sanagustineko emanaldiaren aurretik, berriz, Gaztelekuan izango da Snay, herriko gazteekin hitz egiten. Arteaz, musikaz, bere bizipenez eta martxan dituen proiektuez jardungo du haiekin.

**Puntuka**

J.M. Olaizola 'Txiliku'

Su-piztailea

Era askotara adierazi ohi da: eztabaida, liskarra, errieta, iskanbila, haserrea, xextra, sesioa, borroka, guda, gerra... Hitz denek ez dute adierazten ika-mikaren kontzeptu maila bera, badira neurriak eta desberdintasunak eztabaidatik hasi eta gerraraino, baina oinarrian gauza bertua adierazten dute: gatazka.

Gatazka nahiko erraz sortzen da: nahikoa dira bi oilar oilategi berean. Jo dezagun oilar horietako bati Putin deitzen diogula, eta besteari, Zelenski, eta eman dezagun bat sartu dela bestearen oilategian, eta kendu dizkiola aginte-lurak (Krima, Donetsk...). Bigarren oilarra, jakina, ez da isilik geratuko. Ez dago lehen-gusu errusiarraren gehiegikeriak jasateko tenorean. Bi oilar. Gatazka piztuta, eta edozein erokeria egiteko libre.

Ez naiz ni hasiko mundua nola konpundu behar den erakusten (*Jainkoak garda!*), baina egin nahi nuke ohartxo bat gatazka ia gehienetan izan ohi den osagai bati buruz; su-piztaile edo endreda-makilei buruz ari naiz.

Esate baterako, lehenago *majadero* totala zelako ondorengoa hobea izan beharko lukeen Biden jaunak, Ameriketako Estatu Batuetako agure goren eta zahar-

**Malpika dorretxea, Zamudio.** WIKIPEDIA

kituak, ez omen ditu ikusten begi onez Txina eta Errusia, itzal egin baitiezaiokete industria eta energiaren merkatuan. Hor aitzakia, Europan sua piztu eta bi oilar mokoka jartzeko. Bidal dezagun Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea (deitu OTAN) ahobero-lanak egitera, alarma soziala sortu, gerraren mamua gainean dutelako lehendik ere ipurdia estuturik dauden europarren lurraldean, bidali mezu militaristak, esan Errusiari ez zaila ezer barkatu behar: boikota, zigorra! Eta zuek lasai, Errusiako energiaren beharrea bazarete, nik neuk salduko dizuet, ez kezkatu, eta, bide batez, armak ere salduko dizkizuet, zuei eta besteei. Zuek lasai. Bi oilarak *bakeatzen* saiatu ordez, sua pizten... Endreda-makila.

Gatazketan su-piztailearen kontuak ez dira oraingoak; begira, bestela, Bilbo aldeko aspaldiko pasadizo bat. Oilarrak, bi: Abendaño Joan eta on Tello, Bizkaiko Jauna. Abendañoari *Gaiztoa* deitzen zioten, arrazoiz (lehengusu bat bizkarrez sastakatuz bilakatu zen Bizkaiko Jauntxoaren jauntxo). Bestea, on Tello zeritzana, Gaztelako Alfontso XI.aren sasiko semea omen, ezkontza bidez (Jaurerriko andere goren Laraku Joanaren senarra zen) Bizkaiko jaun bilakatu.

Euskal Herriko XIV. mendeko jauntxoaren arteko gatazketan Zamudio Malpika dorretxea erdigune hartu, eta borroka bizian ibilia zen Abendaño Joan hori, Bilbo hiriarren aurka batik bat, baina politikak eta bizi-beharrak halaxe aginduta,

on Telloren eskuineko besoa izatera iritsi zen, jakina baita otsoa ez dela otsokiz elikatzen, eta nahiago izaten duela etsaiarekin elkartu norberaren boterea galdu baino. Dena dela, gauzak ez zitzaizkion nahi bezala atera Abendaño jauntxoari.

Lope Gartzeta Salazar historiagileak dioenez, 1356. urtean, Bilbo hiriko jauregi barruan, on Tello hil arazi zuen Abendaño Joan, eta etxeko leihotik behera jaurti hil ondoren «*porque fazia muchas osadías en Vizcaya e no preçtava nada al Señor*».

Muinean, ordea, beste kontu bat zegoen. On Tello ehiztari ausartzat omen zuen bere burua, eta dozena bat basurde oldarkor ekarriak zituen Bilbora erakustaldi bat emateko. On Tello zaldi gainean haiek menderatzen sartu zen herriko plazan, baina zaldia izutu zitzaion eta ezerezean geratu zen erakustaldia. Abendañoak esan omen zion uzteko zaldia eta berak menderatuko zituela basurde menderaezin haiek. Eta halaxe egin, hain gogorra omen zen Zamudioko gure jauntxo hori, ezen ezproiak zaldiaren saihestetan iltzatuz, zaldia zutiarazi eta basurdeen artean borrokatzera behartu baitzuen.

Momentuz horrela geratu zen gauza, baina badirudi une lotsagarri horretan on Tellok entzun ez zituen mespretxuzko hitzen batzuk esan zituela Joan Abendaño. Jauregiratu zenean, on Tellok izan zituen inguruan hainbat su-piztaile, esan ziotenak barkaezinak zirela harroputz hark esan zituenak, eta denen artean endreda-makilarik handiena Pero Roiz Lezamakoa izan omen zen. Itxuraz, abendañotarra aspaldian omen zebilen Lezamako horren emazte Elvira «*que era mucho hermosa e loçana*» bereganatu nahian. Esandakoa: nahikoa bi oilar eta su-piztaile bat gatazka pizteko. Eta gure oihua: gerrarik ez! Eta su-piztailek ere ez!

Tokikomek urtemugako jardunaldiak egingo ditu

-ERREDAKZIOA

Aurten hamar urte bete dira euskarazko 76 toki komunikabide batzen dituen Tokikom taldea eratu zenetik, eta urteurrena ospatzeko gertuko kazetaritzaren inguruko jardunaldiak antolatuta ditu taldeak. Jardunaldiak martxoaren 24an izango dira, Getxoko Olatua gurutzontzien terminalan (Bizkaia). Jardunaldiotan lekua erreserbatzeko epea zabalik dago, eta bihar itxiko da.

Komunikabideak etorkizuna ehuntzen lelopean, Tokikomek berak antolatuta ditu jardunaldiak, Bizkaiko Foru Aldundia, Getxoko Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta EITBren babesaz,

eta Uribe Kostako Hiruka komunikabidearen laguntzaz.

Hausnarketa eta aldarria

Ekitaldia 09:00etan hasiko da, eta hiru zati izango ditu: hausnarketa, aldarrikapena eta festa. Hausnarketari dagokionez, hiru gai nagusi landuko dituzte jardunaldian; lehenengoa *toki komunikabideen demokrazia sozialaren eraikuntzan duten garrantzia* izango da. Horretan sakontzeko, Britainia Handiko BBC telebista publikoaren *Local Democracy Reporting* eta *Shared Data Unit* esperientziak ezagutaraziko dituzte, korporazio publikoaren zein Erresuma Batuko toki komunikabideen ikuspegi-

tik. Gainera, Norvegiako toki komunikabideen elkarteak bertako telebista publikoarekin duen lankidetzaren programaren berri emango du, eta Tokikomek EITBekin batera garatutako Sare-tzen egitasmoaren lehen fruituak aurkezteko dituzte.

Kazetaritza eta aisialdia izango da beste mintzagaietako bat. Hala, Euskal Herriko Unibertsitateko Ikusker ikerketa taldeko kideek Euskal Herriko gazteen eduki eta informazio kontsumoen ohituren berri emango dute, eta gai horri lotuta, EITB prestatzen ari den Primeran ikus-entzunezko plataforma publikoaren aurrerakin bat ere ikusi ahal da Getxon.

Gai teknikoekin jarraituta, *kazetaritza eta digitalizazioa* ere izango dute hizpide. Alde batek, UNAVeko adituen eskutik, Reuters Institutuaren *Digital News Report* txostena aztertuko dute, eta horrek mundu osoko eta Espainiako Estatuako eduki eta albiste kontsumo ohituren inguruan zer dioten landu. Gainera, tokiko kazetaritzan aplikatu daitezkeen adimen artifizialeko tresnen aukerak eta erronkak ere xehatuko dituzte.

Elkarteen manifestua

Atal akademikoa bukatuta, aldarrikapenerako tarte ere izango da jardunaldietan. Herrialde Katalanetako toki komunikabide-

en elkarteekin batera, toki komunikabideen elkartearen manifestu komuna sinatuko dute, horien garrantzia aldarrikatzeko. Joan zen urteko azaroen Kataluniako Premsa Comarcal elkarteak 40. urteurrenako ekitaldira gonbidatu zituenetik, lankidetzaren dinamika abiatu du Tokikomek Kataluniako, Valentziako, Mallorcako eta Menorcako toki komunikabideen elkarteekin, eta aurrera begira lankidetzaren hori zehazteko lehen urratsa izango da manifestua.

Eguna bukatzeko, jardunaldiak Tokikomen urteurrenaren inguruko ikuskizun batekin borobilduko dituzte, eta haren ostean, mokadua izango da.

Lehen kimu nesken txapelketa antolatu du Domusa Teknik Azpeitia Cupek

Hiru futbol txapelketa izango ditu aurtengo jardunaldiak • Apirilean eta ekainean jokatuko dituzte infantil nesken eta kimu mutilen nahiz nesken lehiak Garmendipen

-NEREA URANGA

Berrikuntzekin dator aurtengo Domusa Teknik Azpeitia Cup: hiru futbol txapelketak osatuko dute. Zailtasunak zailtasun, festa giroa eta futbola uztartzen dituen lehiaketan apustu berri egin eta aurreneko kimu nesken futbol taldeak bilduko dituen txapelketa antolatu dute. Atzo aurkeztu zituzten futbol lehiak Sanagustin kulturgunean, Mikel Rodriguez Azpeitia Cupeko kideak, Nagore Alkorta Azpeitiko alkateak, Iker Goiria Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo zuzendariak eta Joseba Otaegi Domusa Tekniko lehendakariak.

Apirileko eta ekaineko hiru asteburutan jokatuko dituzte hiru txapelketak. Gaztetxoek futbol talde ugari elkartzeko dira asteburu horietan Azpeitian, eta haiek batera futbolarien familiarterakoak eta lagunak. «Hala izan da aurreko jardunaldietan, eta aurten ere hala izan dadin nahi dugu», esan zuen Rodriguezek.

Gaztetxoek artean futbola sustatzarekin batera, Azpeitia eta inguruak ezagutaraztea du helburu Domusa Teknik Azpeitia Cupek. «Badakigu Azpeitira txapelketara etorritako asko berriro itzuli direla ingurutara oportetan eta. Txapelketaren bueltan elkartzeko diren futbol taldeko kidea izan nintzen, eta pozgarria da gure helburuetako bat», azpimarratu zuen Rodriguezek. Azpei-



Otaegi, Rodriguez, Alkorta eta Goiria, atzo, aurkezpenean. N. URANGA

tia Cupeko ordezkariak esandakoa aintzat hartuta hitz egin zuen Goiriak: «Aldundiaren lana turismoa lurralde osora zabaltzea eta txoko desberdinak ezagutaraztea da. Txapelketa hauek lan ona egiten dute horretan, eta horregatik laguntzen ditugu».

Futbol txapelketak aurrera ateratzeko laguntza ematen diotenak ere eskertu zituen Azpeitia Cupeko ordezkariak. «Txapelketa posible egiten duten denek eskerrak eman beharrean gaude. Aurtengoa, gainera, ekonomikoki urte gogorra da guretzat ere, ostatu eta garraioaren prezioak asko igo direlako».

Azpeitiko alkatea pozik agertu zen nesken bi txapelketa jokatuko direlako Domusa Teknik Azpeitia Cupen. «Neu Azpeitiko lehen nesken futbol taldeko kidea izan nintzen, eta pozgarria da aurten nesken bi txapelketa an-

tolatu izana. Gainera, txapelketa kirol ospakizuna izateaz gain, ekitaldi soziala ere bada».

Hiru txapelketa

Aste Santuko asteburuan jokatuko da hiru txapelketatik aurrenekoa: infantil mailako neskena. Apirilaren 7tik 9ra izango den txapelketan hamasei taldek parte hartuko dute. Antolatzaileek adierazi zuten «asko kostatu» zaiela antolatzea; datak, tarteko: «Agian, Aste Santuan izanda, ez da txapelketa jokatzeke garairik onena. Datorren urterako horren inguruko hausnarketa egin beharrean gaude». Dena den, maila oneko txapelketa osatu dute, Rodriguezen arabera.

Beste bi futbol txapelketak ekainean jokatuko dituzte. Ekainaren 9tik 11ra jokatuko dute kimu mutilena, Domusa Teknik Azpeitia Cup txapelketaren

«erreferente» dena, antolatzaileen esanetan: «Urte gehien dituen txapelketa da, eta egun oihartzun handiena duena». 37 taldek parte hartuko dute. «Taldea gehiagok ere parte hartu nahi izan dute, baina ezeko eman behar izan diegu», esan zuen Rodriguezek. Espainiako Futbol Ligako klubek harrobiko hamabost talde ariko dira.

«Ilusio handia» egiten dien txapelketa berria ere antolatu dute aurten; hala adierazi zuen Rodriguezek: kimuen mailako neskena. «Aspalditik genuen hori antolatzeko gogoia, baina talde gutxi zeuden maila horretan. Azken urteetan, baina, emakumeen futbolak indar handia hartu du, eta kimuen txapelketa antolatzeko erronkari heltzea erabaki dugu». Kimuen txapelketa berria ekainaren 16tik 18ra bitartean jokatuko dute, eta dagoeneko hogeitahortek eman dute izena parte hartzeko. Apirilaren bukaerara arte dute taldeek txapelketan izena emateko aukera, eta antolatzaileek 30 talderen parte hartzea izatea nahi dute.

Hiru txapelketak ostiral arratsaldeetan hasi eta igande eguerdian bukatuko dira. «Domusa Teknik Azpeitia Cup txapelketan parte hartzen dutenek eta haiek Azpeitira datozenek festa giro onean kirolaz eta herriaz gozatzeko izango da gure helburua», adierazi zuen antolatzaile taldeko kideak.

Trikitizaleen topaleku bilakatuko da zapatuan Soreasu

-J. FRANTZESENA

Trikitixaren ganbara erakusketaren irekierekin, herritarrek asteburuan hasi ziren San Jose trikiti jaialdirako motorrak bertzen, eta larunbatarekin iritsiko da trikitizaleentzat hain maitea den hirtzardua. Hain zuzen ere, Soreasu antzokia trikitiaren plaza bilakatuko da zapatuan, 17:30etik aurrera; izan ere, trikiti eta panderoa izango dira protagonista San Jose jaialdiaren 33. edizioan.

Trikitilari ugari igoko dira antzokiko agertokira: Aritz, Aitziber eta Anaiz; Eneko Arbeo eta Jon Izagirre; Eider eta Lierni Tolosa; Iñorkiñak; Garixe eta Maltzeta, nahiz Enaitz Alberdi, Amets Bilbao, Jokin Tolosa eta Ander Gorostiaga. Gainera, Traditions & Tradizioak emanaldia ere eskainiko dute Joshua Edelmanek, Ander Garciaik, Xabi Arakamak eta Imanol Intxaustik. Iñaki Larrañaga izango da gonbidatu berezia.

«Erraza ez bada ere», urtero, sanjosetako trikiti jaialdiaren Soreasu antzokiko agertokian izan gabeak diren bikoteei eta taldeei parte hartzeko «aukera ematen» saiatzen direla azaldu du Ibon Errazu Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolaketazko kideak. Horri lotuta, plazetan ezagunak diren bikote batzuek jaialdian lehen aldiz parte hartuko dute. «Soinu txikiarekin eta panderoarekin batera, bestelako musika tresna batzuk ere entzun ahal izango dira».

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €
merkeago HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZako bulegotik pasa
Bez barne

Agenda

Gaur, osteguna

Batzarria

Azpeitia. Sanjuandegiko festak antolatze bilerara irekia, 21:00etan, auzo lokalean.

Ipuin kontaketa

Azkoitia. Lupe Lekuonaren ipuin kontaketa saioa, 17:30ean, Aizkibel liburutegian.
Zarautz. Miriam Mendozaren eskutik, *Gurasoak ere ipuin kontalari* saioa Sanz Enean, 17:30ean hasita, 3-6 urte bitarteko haurtzat.

Zinema

Zumaia. *Un pas mes* idokumentalaren emanaldia, 19:30ean, Aita Mari aretoan.

Erakusketa

Azpeitia. 2022ko Sorkuntza Bekei esker ondatako lanen erakusketa kolektiboa Betharram aretoan, 18:00etatik 20:00etara. Igandera bitartean dago ikusgai.

Bihar, ostirala

Kontzertua

Azpeitia. Betto Snay abeslariaren zuzeneko, 19:30ean hasita, Sanagustin kulturgunean.

Ikuskizuna

Zumaia. Oihana Iguaranen eta Amairu Luluagaren *Amarau* dantza eta bertsoari buruzko uztartzen dituen ikuskizuna, 20:00etan, Aita Mari aretoan.

Ikastaroa

Zarautz. Perkusio ikastaroa eskainiko du Rakel Arbeloa jazz baterian graduatuak, 18:30ean hasita, musika eskolako aretoan.

Mus txapelketa

Azpeitia. Lololako San Jose jaien bueltan, mus txapelketa izango da 22:15ean hasita, Kiruri jatetxean. 21:30ean zabalduko dute izena emateko epea.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Azpeitiko Udal Musika Bandako eta Sorotan Bele taldeko kideak herenegun egin zuten azken entsegu orokorrean. MAIALEN ETXANIZ

Azpeitiko Udal Musika Bandak 'Sorotan Bele gogoan' ikuskizuna eskainiko du igandean, Urbil Artola eta Gorka Sarriegi musikariek batera. «Zuzeneko berezia» izango dela aurreratu dute.

Sorotan Bele gogoan eta oholtzan

MAIALEN ETXANIZ *Azpeitia* kontzertu berezia hartuko du igandean Soreasu antzokiak. Azpeitiko Udal Musika Bandak eta Sorotan Bele taldeko Gorka Sarriegi eta Urbil Artolak *Sorotan Bele gogoan* kontzertua eskainiko dute, 18:00etan hasita. Emanaldi berezia izango da, musika taldeko eta bandako kideez gain oholtzara igoko baitira Juan Antxieta musika eskolako haurrak eta koru gazteko kideak. Hitzordurako prest daude.

Sorotan Bele gogoan ikuskizunak folk-pop taldearen ibilbideari egiten dio gorazarre. Sorotan Bele taldeak hiru disko entzutezko argitaratu zituen, eta kantu asko ezagunak egin ziren gerora. Abesti ezagun horietako hainbat entzuteko aukera izango da igandean Soreasun. Honela aurreratu du Gorka Sarriegi musikariak: «Ezagunak diren abestiak entzuteko aukera izango dute bertaraten diren herritarrak, modu berezi batean, gainera; izan ere, abestiek eta ikuskizunak indar gehiago hartzen dute musika bandarekin, askoz jende gehiago baitago agertoki gainean. Beste soinu mota bat da, baina, era berean, betiko abestiak dira eskainiko ditugunak». Kantuen konponketak «desberdinak» direla gaineratu du Urbil Artolak: «Musika bandedi begira egindako emanaldia da, eta ohikoak ez diren tinbreak entzun daitezke».

Duela bi urte inguru estreinatu zuten *Sorotan Bele gogoan* emanaldia, eta orduz geroztik «harrera oso polita» izan duela kontatu dute bi musikariek. «Berezia izaten ari da», dio Artolak. Antzerako sentitzen du Sarriegi: «Niretzako hunkigarria da ikustea jendea gogoz gerturatzeko delako emanaldia, nahi duela gerturatzeko delako antzokira. Abestiak ezagutu eta maite dituen jende asko etortzen denez, giro berezia sortzen da». Udal Musika Bandako zuzendari Unai

Frantsesenak atzeko lanaz egin du aipamena. Hark hainbat moldaketa gauzatu ditu emanaldira, eta muntaketa lanetan ere lagundu du. Hala ere, «prozesua bera oso polita» izan dela aitortu du, eta igandeko gogoz agertu da. Herritarrei bertaratzeko deia egin die Frantsesenak: «Garai zaharrak edo ez hain zaharrak gogoratzeko aukera bikaina izango da».

Musikariak, gogoz

Udal Musika Bandako kideak dira Maialen Eizagirre eta Julen Carrizo, eta igandeko emanaldira rako gogotsu daude. «Beti izaten dugu gogoia ekitaldi berezietarako. Tarteka egiten ditugu horrelakoak, eta harrera ona izaten dutenez, ederra izaten da», adierazi du Eizagirrek.

Otsailean hasi ziren lehen entseguekin, eta orduz geroztik denbora ugari eskaini diote presaktari. «Astero bizpahiru ordu eman ditugu entseatzeko; ea egindako lanak fruituak ematen

dituen», adierazi du Carrizok. «Partitura guztiak berriak zirenez, horiek ondo ikasteko lan handia egin behar izan dugu guztiok. Politena da Sorotan Bele bezalako talde batekin agertokiak elkarbanatzeko aukera izatea; izan ere, abestiak oso ezagunak dira, eta horietako batzuk berezia dira guretzako ere», adierazi du Eizagirrek. Carrizoren aburuz, musika banda guztia koordinatzea izan da zailena: «Horrenbeste lagun horrelako proiektu batean murgiltzeak lana eskatzen du». Musika eskolako haurrak eta koru gazteko kideek ere parte hartuko dute emanaldian. Horiez gain, gitarra elektrikoak eta baxuak ere izango dute lekua, eta horiek abestiei «beste bizi bat» emango dietela uste dute bi musikariek. Herritarrei kontzertura bertaratzeko deia egin diete: «Horrelako kontzertuak ez dira ohikoak, eta aukera ona da Sorotan Bele aspaldiko partez zuzenean entzuteko. Ikuskizun ederra izango da».